

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko martxoaren 20ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita 2019an guraso elkarteei dirulaguntzak emateko

BDNS (identifikatzailea): 445624

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza deialdi honen onuradun izango dira Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak. Elkarte onuradunek derrigorrezko hezkuntza mailak ematen dituzten ikastetxeei lotuta egon behar dute.

Dirulaguntzaren onuradun izateko, gurasoen elkartea kasuan kasuko elkarteen erregistroan egongo da inskribatuta (otsailaren 10eko 66/1987 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituena).

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak sustatzea parte har dezaten aktiboki eskola prozesuan, eta finantzatzen laguntzea hortik sortzen diren gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 20an xonetsitakoak. Udalaren web orrian argitaratu ziren.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 7.000,00 euro da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik 2019ko apirilaren 30era arte.

Iruña Oka, 2019ko martxoaren 20a

Alkate-Lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA